

Erakunde parte-hartzaile baten bezeroen balioen babes

Kutxabankek, 909/2014 Erregelamenduaren (EB) 38. artikulurekin bat, BEZEROARI hau jakinarazten dio: urriaren 23ko 4/2015 Errege Dekretuaren, Balore Merkatuen Legearen testu bategina onartzen duenaren, bidez araututako maila bikoitzeko erregistro-sistemaren barruan, BEZEROAK bereizketa hauek izateko aukera izango du:

1. Bereizketa mailak

- Kontu orokorra: Kutxabankek, erakunde parte-hartzaile den aldetik, hirugarrenen izenean dauden xehetasun-erregistroen kontuetan erregistratutako dituen baloreen saldo osoa adierazten dute kontu horiek.
- Banakako kontua: Kutxabankek BEZEROAK diren titularraren baloreen saldoa adierazten dute kontu horiek, baldin eta BEZEROAK adostu badu erregistro nagusian kontu horren errentamendua ematea. Kutxabank, erregistro nagusian kontua irekitzea eskatzen duen erakunde parte-hartzaile den aldetik, arduratuko da kontuaren kudeaketaz, eta BEZEROAREKIN adostu beharko ditu kontuan jasotako baloreen antolaeraren baldintzak.

2. Maila bakoitzaren kostuen deskribapena

BEZEROAK ondoren ezarritako kostuak bere gain hartuko ditu, balore-kontuari eusteko:

Erregistro nagusian:

- Kontu orokorra: ez du kosturik bezeroarentzat.
- Banakako kontua: Hilean 150 € kontuko, eta horri une bakoitzean indarrean dagoen BEZ gehitu beharko zaio. Balore-kontratuarekin lotutako aurrezki-kutxan zorpetuko da zenbateko hori.

Xehetasun-erregistroa:

Ez dago kosturik bezeroarentzat.

3. Inplikazio juridiko nagusiak

Balore Merkatuen Legeak legezko titulartzat hartzen du Inberclearren erregistroetan edo Kutxabanken erregistroetan izena emanda dagoena. Beraz, kontuak bereizteko aukerak ez du eraginik erregistratutako baloreen legezko izaeran edo titularrak Kutxabank igoaren aurrean edo hirugarrenen aurrean duen posizioan.

Horri dagokionez, Balore Merkatuen Legearen 13.1. artikulua hau ezartzen du:

“Kontularitza-erregistroko idazpenetan legezkotzat jota ageri den pertsona legezko titulartzat joko da, eta horren ondorioz, erakunde jaulkitzaileari bere aldeko prestazioak egiteko eskatu ahal izango dio, zehazki, kontuan egindako idatzoharren bidez adierazitako baloreak eskubidez ematen dizkion prestazioak.”

Eskubide horiek eraginkor egiteko, erregistro-sistemaren dagokion kontuan eskubidea aurretik aitortu behar da, Balore Merkatuaren Legearen 13.3. artikulua aurreikusten duen bezala:

“Titularrari dagozkion eskubideak besterentzeko eta baliatzeko, aurretik bere aldeko inskripzioa egin behar da.”

Halaber, garrantzitsua da Balore Merkatuaren Legearen 11.3. artikuluan eskuratzailaren alde fede onez emandako babesa:

“Hirugarrenengo batek kostu bidez eskuratzen baditu, kontularitza-erregistroaren arabera, idatzoharrak legitimatuta dagoen pertsonaren kontuan idatzoharren bidez adierazitako baloreak, hirugarrenengo hori ez da aldarrikapenetara atxikita egongo, eskuratzeko unean fede txarrez edo erru larri jokatu duenean salbu.”

4. Araudi aplikagarria kaudimengabeziaren esparruan

Kaudimengabeziaren esparruan 41/1999 Legea, azaroaren 12koa, baloreen ordainketa-sistemi eta likidazioari buruzkoa (98/26EE Zuzentarauaren iraulketa), uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legea, Balore Merkatuaren Legea, 15. eta 102. artikuluetan, bai eta uneoro aplikagarria den araudia ere.

5. Emandako informazioaren laburpen-koadroa

Erregistro Nagusian kontu mota	38. betekizuna CSDR	Beseroarentzako kostua	Legezko inplikazioak	Erakunde parte-hartzailearen konkurtso-egoera	Araudi-erreferentziak
Hirugarrenengo Kontu Orokorra	Kontu globaletan bereizketa – Kutxabanken Kontua xehetasun-erregistroetan dagokion xehakapena eskatzen du	0,00 €	Erakunde parte-hartzailearen kargura xehetasun-erregistroetan izena ematek eratorritako titulartasuna aitortzen da	Titularraren araberako lekualdaketa eskubidea. Defizita badago: Hirugarrenengo Kontu Orokorretan prorata banatzea	Balore Merkatuaren Legearen 9., 15. eta 102. artikulua 878/2015 Errege Dekretuaren 32. artikulua
Hirugarrenengo Banakako Kontua	Banakako kontuan bereizketa	150,00 € gehi indarreko BEZ	Titulartasuna aitortzen da	Titularraren araberako lekualdaketa eskubidea.	Balore Merkatuaren Legearen 9., 15. eta 102. artikulua 878/2015 Errege Dekretuaren 32. artikulua

Era berean, BEZEROAK eskura izango du baloreen babesari buruzko informazioa webgune honetan: kutxabank.es